



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2021IPLE0007

Eguna: 2021-06-29

Ordua: 19:00 – 19:25

Tokia: Areto Nagusian

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

Idazkaria

Kontxi Urdampilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2021eko ekainaren 15eko aktaren onarpena.		Aprobación del acta de 15 de junio de 2021.
EH Bildu taldearen mozioa, Buruntzaldeko autobus zerbitzu berriaren ingurukoa		Moción de EH Bildu sobre el nuevo servicio de autobuses de Buruntzaldea
Informazio, galdera eta eskariak.		Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.-2021eko ekainaren 15eko aktaren onarpena

1.-Aprobación del acta de 15 de junio de 2021

Aitor zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

El concejal Aitor se ha abstenido al no estar presente en la sesión anterior, el resto en cambio, ha votado a favor. Por lo que se ha aprobado el acta.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

2.-EH Bildu taldearen mozioa, Buruntzaldeko autobus zerbitzu berriaren ingurukoa

Alkateak adierazi ondoren Astigarragako EHBilduk denbora daramala – udal osoko bilkuretan – autobus zerbitzuaren murrizketak salatuz, eta adierazi du, denbora daramaten arren autobus-ordutegi berria eskatzen, ez dela jaso osoko bilkuraren egunera arte. Era berean, adierazi du bizilagunen kexa ugari jaso direla, eta Aldundiari ingorri zaizkiola.

Jarraian, ondorengo testu hau aukeztu du onartua izan dadin:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzak 2021-05-14an Udalari idatzia helarazi zion, adieraziz 2021eko uztailaren 1etik aurrera, "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak" errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraioaren zerbitzu publiko erregular berria hasiko dela.

Idatzi horretan Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzak Astigarragako Udalari hurrengo bi proposamenen inguruan iritzia emateko eskatu zion:

1. A1 linearen maiztasuna murriztea:

Ordubeteko maiztasunera pasatzea proposatzen dugu, gaur egungo 30 minutukoaren aurrean; eta A2 linearen maiztasuna handitzea, 30 minututik 20ra igaroz.

2. A1 linearen ibilbidea aldatzea, ibilbide denbora murrizteko. Hau da:

a. Astigarraga udalerrira sartzea saihestea (Pilotari, Galtzaur 8, Galtzaur 24 Donostiarako noranzkoan eta Pelotari kalea eta Kale Nagusia Hernanirako noranzkoan bertan-behera utziz), Astigarragan A2 linearen ibilbide bera eginez.

b. Donostiara sartzeko ibilbidea aldatzea: "Loiolako topoa" geralekutik, "Loiolako erriberak", "Madril etorbidea, 3" eta "Antso Jakituna, 33" geralekuak egingo lirateke, "Okendo" geralekuraino. Bartzelona 35", "Bartzelona 15", "Gregorio Ordoñez" eta "Madril etorbidea, 19" geralekuak bertan behera utziz.

3. Aurreko bi aukerak batera aplikatzea.

Hori guztia ikusita, Astigarragako Udalak, batetik,

2.-Moción de EH Bildu sobre el nuevo servicio de autobuses de Buruntzaldea

El alcalde tras explicar que EHBildu de Astigarraga lleva tiempo denunciando – en los plenos – los recortes del servicio de autobuses, ha señalado que aún cuando llevan tiempo solicitando el nuevo horario de autobuses no se ha recibido hasta el día del Pleno. Indica también que se han recibido innumerables quejas del vecindario, las cuales se han remitido a Diputación.

A continuación, presenta el siguiente texto para su aprobación:

La Dirección de Movilidad y Transporte Público de la Diputación Foral de Gipuzkoa con fecha 14-05-2021 remite escrito al Ayuntamiento indicando que a partir del 1 de julio de 2021 se iniciará el nuevo servicio público regular de transporte interurbano de viajeros por carretera "Tolosa, N-I y conexiones con Buruntzaldea y San Sebastián".

En dicho escrito la Dirección de Movilidad y Transporte Público de la Diputación Foral de Gipuzkoa solicita al Ayuntamiento de Astigarraga que se pronuncie sobre las siguientes dos propuestas:

1. Reducción de la frecuencia de la línea A1:

Proponemos pasar a una frecuencia de una hora frente a la actual de 30 minutos; y aumentar la frecuencia de la línea A2 pasando de 30 a 20 minutos.

2. Modificar el recorrido de la línea 2 A1 para reducir el tiempo de recorrido. Es decir:

a. Evitar el acceso al municipio de Astigarraga (abandonando Pilotari, Galtzaur 8, Galtzaur 24 dirección Donostia y calle Pelotari y Gran Vía sentido Hernani), realizando el mismo recorrido que la línea A2 en Astigarraga

b. Modificación del itinerario de acceso a San Sebastián: desde la parada "topo de Loiola" se realizarían las paradas "Riberas de Loiola", "Avenida de Madrid, 3" y "Sancho el Sabio, 33" hasta la parada "Okendo". Cancelando las paradas "Barcelona 35", "Barcelona 15", "Gregorio Ordóñez" y "avenida de Madrid, 19".

3. Aplicación conjunta de las dos opciones anteriores.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Astigarraga, por



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzari bilera bat egiteko hitzordua eskatu zion (bilera hori 2021-05-20an egin zen) eta, bestetik, herritarrekin bilera ireki bat deitu zuen (maiatzaren 20ko arratsaldean egin zena), herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

2021eko maiatzaren 20an Aldundiarekin egindako bileran, Astigarragako Udalak aipatutako neurrien aurkakotasuna adierazi zuen baina Udalak posizioa herritarrekin konpartitu eta adostu nahi zuela adierazi zuen eta maiatzaren 26rako Foru Aldundiak egindako proposamenei erantzuteko konpromisoa hartu zuen.

2021eko maiatzaren 20ko arratsaldean herritarrekin egindako batzarrean, herritarrekin adostu zen Aldundiari eskatzea hurrengo gutxieneko hauek bermatzeko:

- A1 linea, gutxienez, 30 minutuero izatea.
- A2 linea 20 minutuero izatea.
- A1 linearen ordutegiak eskola sarrera-irteeretara egokitzea.

Astigarragako Udalak ekarpen horiek idatziz helarazi zizkion Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzari 2021-05-26an.

KONTUAN HARTZEKOAK

Murrizketak

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiarekin dituzten loturak errepideko herriarteko bidaiarien garraiorako zerbitzu publikoaren bidez emateko emakidaren" kontratuan agertzen denez (kontratua argitaratuta dago), Astigarragako lineetan hurrengo murrizketak aplikatuko dira:

un lado, solicitó a la Dirección de Movilidad y Transporte Público una cita para celebrar una reunión (que tuvo lugar el 20-05-2021) y, por otro, convocó una reunión abierta con la ciudadanía (celebrada en la tarde del 20 de mayo) para recabar las opiniones y aportaciones de la ciudadanía.

En reunión celebrada con la Diputación el 20 de mayo de 2021, el Ayuntamiento de Astigarraga manifestó su oposición a las medidas mencionadas, pero el Ayuntamiento manifestó su voluntad de compartir y acordar su posición con la ciudadanía y se comprometió a responder a las propuestas realizadas por la Diputación para el 26 de mayo.

En la asamblea con la ciudadanía celebrada en la tarde del 20 de mayo de 2021, se acordó con la ciudadanía solicitar a la Diputación que garantice los siguientes mínimos:

- Garantizar para la línea A1 una frecuencia mínima de 30 minutos.
- Aumentar la frecuencia de la línea A2 a 20 minutos.
- Adecuar los horarios de la línea A1 a las entradas y salidas escolares.

Dichas aportaciones fueron remitidas por escrito por el Ayuntamiento de Astigarraga a la Dirección de Movilidad y Transporte Público el 26-05-2021.

CONSIDERACIONES

Recortes

De acuerdo al contrato (publicado) de "concesión de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la concesión de las conexiones de Tolosa, N-I, Buruntzaldea y San Sebastián mediante el servicio público de transporte interurbano de viajeros por carretera", se aplicarán las siguientes restricciones en las líneas de Astigarraga:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Astigarragatik	Astegunetan (+)				Larunbatetan				Igandetan				GUZTIRA (+)			
	GE	ORD	DIF	GE-ORD	GE	ORD	DIF	GE-ORD	GE	ORD	DIF	GE-ORD	GE	ORD	DIF	GE-ORD
Hernanira	75	67	-8	-11 %	66	49	-17	-26 %	60	41	-19	-32 %	201	157	-44	-22 %
Martu-Loiolara	33	30	-3	-9 %	33	20	-13	-39 %	31	16	-15	-48 %	97	66	-31	-32 %
Donostiara																
Auzoz-auzo (A1)	33	30	-3	-9 %	33	20	-13	-39 %	31	16	-15	-48 %	97	66	-31	-32 %
Zuzena (A2)	40	37	-3	-8 %	32	31	-1	-3 %	29	24	-5	-17 %	101	92	-9	-9 %
GUZTIRA	73	67	-6	-8 %	65	51	-14	-22 %	60	40	-20	-33 %	198	158	-40	-20 %

Hau da, astegunetan zerbitzua %8 murriztuko da, larunbatetan %22 eta igandetan, aldiz, %33.

Es decir, entre semana el servicio se reducirá un 8%, los sábados un 22% y los domingos, un 33%.

Biztanle kopuruaren hazkundera eta garraio publikoa

Aumento de población y transporte público

Astigarragak, gutxienez 2014tik autobus zerbitzu berdina jasotzen du eta orduetik hona Astigarragaren biztanleria 1.700 pertsona gehiagotan hazi da (hau da, %31,9ko hazkundera izan du).

Astigarraga recibe al menos el mismo servicio de autobús desde 2014 y desde entonces la población de Astigarraga ha aumentado en 1.700 personas, lo que supone un incremento del 31,9%.

Halaber, Astigarragak garraio publikoko zerbitzu bakarra du, A1 eta A2 lineek osatzen dutena. Azken urteotan zerbitzu hori oso eskasa izan da eta gorabehera ugari gertatu dira (autobusetan matxurak, garbitasun eza, irisgarritasuna bermatzen ez duten autobusak, herritarrek geltokian geratzea autobusean lekurik gabe...). Horren ondorioz, astigartar askok garraio publikoa baztertu egin dute ez dielako ziurtatzen kalitatezko zerbitzurik lanera edo ikastera modu duinean eta garaiz iritsi ahal izateko.

Asimismo, Astigarraga cuenta con un único servicio de transporte público, formado por las líneas A1 y A2. En los últimos años este servicio ha sido muy deficiente y se han producido numerosas incidencias (averías en los autobuses, falta de limpieza, autobuses que no garantizan la accesibilidad, personas en las paradas sin espacio en el autobús...). Como consecuencia, muchos astigartarras han rechazado el transporte público porque no les asegura un servicio de calidad para poder llegar a trabajar o estudiar de forma digna y a tiempo.

Hori guztia kontuan hartuta, ez da onargarria biztanle kopuruan %32 hazi den herriari autobus zerbitzuan %25eko murrizketa aplikatzea.

Teniendo en cuenta todo ello, no es aceptable que al pueblo que ha crecido un 32% en número de habitantes se le aplique una reducción del 25% en el servicio de autobús.

Horrekin batera, zerbitzu berriak geltokien kopurua murriztuko du, izan ere, A1 linearen Astigarraga barruko geltokiak desagertu egingo dira, herritar askoren irisgarritasuna zailduz.

Junto a ello, el nuevo servicio reducirá el número de estaciones, ya que las paradas interiores de la línea A1 en Astigarraga desaparecerán dificultando la accesibilidad de muchas personas.

Beste aukera batzuk

Otras alternativas

Astigarragako Udalak landu eta onartu duen Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planak beste aukera batzuk mahai gainean jarri ditu, hain zuzen ere Donostiako Udalaren dBus zerbitzuaren bi linea luzatzea (batetik, dBusen 26. linea, Martutenera iristen dena; eta, bestetik, 35. linea, Antigu-Aiete-Ospitaleak). Donostiako Udalarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean landu behar diren aukerak dira eta Udala jarri da bi erakunde horiekin

El Plan de Movilidad Urbana Sostenible elaborado y aprobado por el Ayuntamiento de Astigarraga ha puesto sobre la mesa otras alternativas como la ampliación de dos líneas del servicio dBus del Ayuntamiento de San Sebastián (la línea 26 de dBus, que llega a Martutene, y la línea 35, Antigu-Aiete-Hospitales). Se trata de alternativas que deben trabajarse en colaboración con el Ayuntamiento de San Sebastián y la Diputación



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

harremanetan aukera horien bideragarritasuna aztertzeko.

Foral y con las que el Ayuntamiento se ha puesto en contacto para analizar la viabilidad de las mismas.

ESKAERA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI:

Hori guztia kontuan hartuta, Astigarragako Udalak hurrengo eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- *Astigarragako zerbitzuetan murrizketarik ez aplikatzea eta, areago, baliabideak handitzea, biztanle kopuruaren hazkundera eta astigarraren eskariari egoki erantzuteko.*
- *A2 (zerbitzu berrian BU13) linearen maiztasuna handitzea eta 20 minutuerokoa izatea.*
- *A1 (zerbitzu berrian BU12) linearen maiztasuna orain artekoa izatea, hau da 30 minutuerokoa izatea eta Astigarragako herri barruko geltokiak ez kentzea.*
- *Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Astigarragako Udalaren arteko lan mahai bat sortzea, Astigarragako garraio publikoa hobetzeko beste aukerak aztertzeko (dBusen 26 eta 35. lineak Astigarragara luzatzeko aukera)*

Nerea zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du eskaerarekin ados badaude ere, eta herritarren beharrak ezagutzen badituzte ere, ez dutela ulertzen zergatik gobernu-taldeak –horretarako emandako epearen barruan– ez duen eskatu udalbarri barruko autobus-geltokiak ez kentzeko, are gehiago osoko bilkuran komentatu zenean eta zuen garrantzia aipatu zenean. Eta udal gobernu taldeari leporatu dio lanak ondo ez egitea eta herritarren interesak ez defendatzea.

Mikel zinegotziak adierazi du Aldundiak gaia hobeto kudea zezakeela, baina, konpromisioa hartu duela, irailetik aurrera, herritarren eskaerak baloratze eta autobus-linea desberdinen azterketa egiteko. Gaineratu du Aldundiak ez duela arazorik Donostiako autobus-lineak Astigarragaraino luzatzeko, baina hori bi udalbarriek hartu beharreko akordioa dela.

Alkateak erantzun die eskatu dutela une oro A1

SOLICITUD A LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPIZKOA:

Teniendo en cuenta todo ello, el Ayuntamiento de Astigarraga solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa:

- *No aplicar restricciones en los servicios de Astigarraga e, incluso, aumentar los recursos para responder adecuadamente al incremento de población y a la demanda de los astigarras.*
- *Aumentar la frecuencia de la línea A2 (BU13 en el nuevo servicio) a 20 minutos.*
- *Mantener la frecuencia de la línea A1 (BU12 en el nuevo servicio) como en la actualidad (frecuencia de 30 minutos) y que no se supriman las estaciones urbanas de Astigarraga.*
- *Creación de una mesa de trabajo entre la Diputación Foral, el Ayuntamiento de San Sebastián y el Ayuntamiento de Astigarraga para estudiar otras alternativas de mejora del transporte público de Astigarraga (posible ampliación de las líneas 26 y 35 de dBus a Astigarraga).*

Toma la palabra la concejal Nerea y señala que si bien están de acuerdo con la solicitud, y conoce las necesidades de la ciudadanía, no entienden porque el equipo de gobierno – dentro del plazo otorgado para ello – no solicitó que no se supriman las paradas de dentro del municipio, máxime cuando se trato en el pleno y se señaló su importancia. Achacando al equipo de gobierno municipal no hacer bien los trabajos y no defender los intereses de la ciudadanía

El concejal Mikel señala que la Diputación podía haber gestionado mejor el tema, pero que se ha comprometido a valorar – a partir de septiembre – las demandas de la ciudadanía y a realizar un análisis de las diferentes líneas. Añade que la Diputación no tiene problema en que se amplien las líneas de Donostia hasta Astigarraga, pero que eso es un acuerdo al que deben de llegar ambos municipios.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

linea ez aldatzeko, uste baitute ez dela eraginkorra ordubeteroko maiztasuna duen autobus-zerbitzu bat, eta egia bada ere zerbitzu martxan jarri ondoren aldaketak egin daitezkeela, ez dutela egoki ikusten zerbitzu bat hastea akatsekin (% 20ko murrizketarekin) eta hobetzeko itxaropenarekin.

Bestalde, Andoni zinegotziak adierazi du arazoa 2017tik datorrela – zerbitzua lizitatu zenean –, eta une hartan Udalak ez zuela behar bezala jokatu. Adierazpen horrek eztabaida eragin du zinegozi horren eta Nerea zinegotziaren artean, zerbitzu honei dagokionez egindako kudeaketen ingurukoak.

Jarraian, alkateak aretoan dauden bi bizilaguni eman die hitza. Lehenengoak adierazi du Aldundiak ez dituela kontuan hartu zerbitzua erabiltzen duten pertsonen beharrak (ordutegiak murriztu dira, autobus-geltokiak kendu...); eta bigarrenak ez dela logikoa zerbitzua murriztea biztanle-kopuruak gora egin duenean, are gehiago udalerrriak duen garraio publiko bakarra denean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa **onartu** da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu) eta 6 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV eta Udaltalde Sozialista)

El alcalde les responde que en todo momento han solicitado que no se modificara la línea A1, ya que consideran que no es operativo un servicio de autobús cada hora, y que si bien es cierto que se pueden llevar a cabo modificaciones, no ven adecuado iniciar un servicio con deficiencias (una reducción del 20%) y la esperanza de mejorarlo.

Por otro lado, el concejal Andoni señala que el origen del problema viene del año 2017 – cuando se licitó el servicio – y que en aquel momento el Ayuntamiento no actuó como se debía, lo que ha provocado una discusión entre éste y la concejal Nerea sobre las gestiones realizadas en relación al servicio.

A continuación el alcalde cede la palabra a dos vecinas presentes en la sala. La primera, señala que la Diputación no ha tenido en cuenta las necesidades de las personas que usan el servicio (se han reducido horarios, eliminados paradas...); y la segunda, que no es lógico que se reduzca el servicio cuando ha aumentado el número de habitantes, máxime cuando se trata del único transporte público con el que cuenta el municipio.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la moción con 7 votos a favor (Astigarragako EHBildu) y 6 abstenciones (EAJ-PNV de Astigarraga y Grupo Municipal Socialista).

3.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- obra eta zerbitzuak batzordea.

Nerea zinegotziak adierazi ondoren denbora dexente pasa dela azken batzordea egin zenetik, uztailean egiteko asmoa dagoen galdetu du; eta alkateak baiezkoa eman dio, adieraziz hainbat proiektu aurketu nahi direla, onartzeko.

b.- DBHko partzela

Nerea zinegotziak partzelaren lagapenaren inguruko informazioa eskatu du, eta alkateak adierazi dio, batetik, obra zibila bukatzeke dagoela; eta bestetik, lagapena bideratzeko bi espediente administratibo daudela martxan (partzela zati baten izaera juridikoa aldatzekoa, eta lagapen berarena), horiek jendaurrean daudela eta asmoa dela uztaileko bilkurara ekartzea onartzeko.

3.- Información, ruegos y preguntas.

a.- comisión de obras y servicios.

La Concejala Nerea tras manifestar que ha pasado bastante tiempo desde que se celebró la última, pregunta si hay intención de convocar una en julio, a lo que el alcalde le contesta que sí y que se quieren presentar varios proyectos para su aprobación.

b.- Parcela de la ESO

La concejal Nerea solicita información sobre la cesión de la parcela, indicándole el Alcalde que la obra civil está pendiente de finalizar y que están en marcha dos expedientes administrativos para proceder a ceder la parcela (uno para modificar la naturaleza jurídica de parte de la parcela, y el de la misma cesión), que ambos están en información pública y que se pretende traerlos a la sesión de julio, para su aprobación.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2021eko ekainaren 29an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria